



Arartekoaren 2018R-2788-17 Ebazpena, 2018ko ekainaren 4koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio ondorioz gabe utzi dezala herritar bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzetarako prestazio osagarria ukatu zizkion ebazpena.

Aurrekariak

1. Herritar batek Arartekora jo zuen, eta adierazi zuen ez zegoela ados Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzetarako prestazio osagarria ukatzeko erabakiarekin.
2. Lanbidek ukatzeko ebazpena arrazoi honetan oinarritu zuen:
 - *“BUaren titularrak eta/edo BUko kideak dituen errendimenduak bizikidetzaren unitateko kideen kopuruaren eta bizikidetzaren unitate motaren arabera dagokion hileko zenbatekoa baino handiagoak izatea”.*
3. Erakunde honetan zabalduko espedienteari erreparatuta, ondoriozta daiteke interesdunak 2016ko urtarrilaren 12an eskaera bat egin zuela berak osatutako pertsona bakarreko bizikidetzaren unitateari diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzetarako prestazio osagarria aitortu ziezazkieten. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eskaera lanagatik diru-sarreraren errenta osagarriaren modalitatean egin zen.
4. 2016ko martxoaren 8ko idazkiaren bidez, Lanbidek dokumentazio hau aurkezteko eskatu zion: *“Nomina”*.
5. Kexan kontatu zuenez, interesdunak eskatutako nominak aurkeztu zituen azalpen idazki batekin batera, eta azken horretan haiek nola interpretatu behar diren jasotzen da, konplexuak baitira.

Horri dagokionez, kexagileak gaineratu zuen arropa denda batean astean 15 orduko lan kontratu bat zuela. Nolanahi ere, garai zehatz batzuetan, Eguberrietan esaterako, ordu kopuru ezberdinetan lan egiten zuen, eta egoera hori nominan ez ezik, hura egin eta aurkezten zen moduan ere adierazten zen.

Adibide gisa, enpresak 2016ko urtarrilari dagozkion hiru nomina eman zituela azaldu zuen. Urtarrilaren 3, 17 eta 31koak. Halaber, esan zuen hil horretan betetako lanagatik jasotako soldata bat zatorrela urtarrilaren 31ko nominaren bidez jaso beharreko zenbateko likidoarekin. 662,35 euroko zenbatekoa zen; bestalde, urtarrilaren 3 eta 17ko nominen bidez jaso beharreko likidoa, zero euro.

6. 2016ko apirilaren 22an, Lanbidek ukatzeko ebazpena eman zuen 2. aurrekarian adierazitako arrazoian oinarrituz.





7. Ukatzeko ebazpenarekin bat ez zetorrenez, kexagileak aukerako berraztertze errekurtsua jarri zuen 2016ko maiatzaren 10ean eta, haren bidez, emandako ebazpenarekin ados ez zegoela adierazi zuen.

Gainera, lan egiten zuen enpresaren nomina-sistema konplexua zela jakinik, hark emandako ziurtagiri bat aurkeztu zuen, eta bertan, 2016ko urtarril, otsail, martxo eta apirilean jasotako hileko ordainsari garbia jasotzen da. Ziurtagiri horretatik ondorioztatzen denez, urtarrilean 662,35 euro kobratu zuen; otsailean, 701,15 euro; martxoan, 640,76 euro; eta apirilean, 667,47 euro. Halaber, ziurtagiri horretatik ondorioztatzen denez ere, interesduna 2015eko irailaren 14an hasi zen enpresa horretan lanean.

8. Aurrez azaldutakoa ikusita, Arartekoak lankidetzatza eskaera bat bidali zion Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, eta sail horri aurretiazko gogoeta batzuk helarazi zizkion, baina orain ez dira aipatu alferrikako errepikapenak saihestearren.

9. Horri erantzunez, sail horrek honako hau esan zuen diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatu izanari lotuta:

- *“Aztergai dugun kasuan, (...) eskatzaileak aurkeztutako errekurtsuaren ebazpena baino ezin dugu jo.*

Errekurtsua 2017ko azaroaren 9koa da (2017/REC/004925) eta ebazpena 2017ko abenduaren 15ean jakinarazi zitzaion(...).”

10. Lanbidek errekurtsu hori ezetsi egin zuen. Arrazoiei dagokienez, haren hirugarren oinarriak honako hau dio:

- *“Visto el recurso presentado y la documentación obrante en el expediente se constata que por resolución de 22 de abril de 2016 se deniega a XXX el derecho a la prestación de la renta de garantía de ingresos y a la prestación complementaria de vivienda. Y ello porque la unidad de convivencia de la recurrente tiene unos ingresos superiores a la cuantía mensual que pudiera corresponderle.*

La recurrente presenta su solicitud en enero de 2016. El artículo 15 del Decreto 147/2010, de 25 de mayo, de la Renta de Garantía de Ingresos regula la forma en la que se determinan los rendimientos, indicando que dentro del cómputo de los rendimientos se incluyen los rendimientos procedentes del trabajo por cuenta propia o ajena. Asimismo, dice que para la determinación de los rendimientos mensuales de la persona solicitante y de las demás personas miembros de su unidad de convivencia se computará el conjunto de rendimientos o ingresos de que dispongan todos ellos en el mes en el que se proceda a la solicitud.



Como hemos dicho antes, la recurrente solicitó la prestación en enero de 2016, su unidad de convivencia estaba formada por ella sola, y presentó unos rendimientos de trabajo del mes de enero por importe de 1.343,66 euros, por lo tanto superiores a la cuantía máxima establecida en el 2016 para las unidades de convivencia similares a la de la recurrente en ausencia total de recursos, que estaba establecida en 625,58 euros. En febrero sus ingresos por rendimientos de trabajo fueron también superiores a esa cuantía máxima”.

11. Azaldutako aurrekarietan oinarrituz, eta beharrezkoak diren egitate nahiz oinarriak daudela iritzita, honako gogoeta hauek egiten dira:

Gogoetak

1. Goian adierazitako errekurtsio horren oinarrian Lanbideko zuzendari nagusiak adierazi duenez, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoaren, 15.1. artikulua (147/2010 Dekretua aurrerantzean), honako hau xedatzen du: *“Eskatzailearen eta bere bizikidetzak-unitateko gainerako kideen hileroko etekinak zehazteko, eskaera egiten den hilean horiek guztiek eskura dituzten etekin edo diru-sarreraren multzoa konputatuko da, (...)”.*

Nolanahi ere, artikulua horren beraren hirugarren apartatuak etekinen zenbaketatik kanpo uzten du *“Etekinen konpututik kanpo geratuko dira diru-sarrera jakin batzuk, 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera”.*

21. artikulua horri dagokionez, esan behar da hirugarren apartatuan, *“zenbagarriak ez diren diru-sarrerak”* goiburuarekin, arautzen dituela enplegurako pizgarri modura ezagutzen direnak¹. Hala, 147/2010 Dekretuaren 21.3. artikulua haxe xedatzen du: *“Laneko diru-sarrerak osatzeko errentaren kasuan, eta lanerako bultzagarria sendaogoa izan dadin, eskura dauden baliabideen konputu horretatik kanpo utziko dira ere eskatzailearen eta haren bizikidetzak-unitateko beste kide batzuen lanetik datozen diru-sarreraren portzentaje jakin batzuk, lana norberaren konturakoa zein besteren konturakoa izan. Bultzagarri hori aldi baterakoa izango da, eta gehienez ere hogeita lau hilabeterako emango da, baina beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak hori egiteko irizpena ematen badu. Lanerako bultzagarri gisako konpututik kanpo utzi beharreko diru-sarreraren portzentajea zehazteko, Eusko Jaurlaritzak honako dekretu hau garatzeko ematen duen aginduaren bitartez ezartzen dituen irizpideei jarraituko zaie”.*

¹ Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 20.2.b) artikulua, halaber, enplegurako pizgarria sendotzeko asmoz, bizikidetzak-unitateko etekinen zenbaketatik kanpo uzten ditu hauek: eskatzailearen nahiz haren bizikidetzak-unitateko beste kide batzuen diru-sarreraren ehuneko zehatz batzuk, norberaren edo besteren kontuko lanetik lortutakoak.



Adierazitako garatzeko aginduaren gainean, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2001eko otsailaren 14ko agindua, oinarrizko errentaren titularren eta gizarte larrialdietarako laguntzen onuradunen enplegurako pizgarriak ezarri zituena, aipatu behar da. Agindu horren 2. artikulua jasotzen du, hain zuzen ere, zer formula erabiliko den enplegurako pizgarri hori indartze aldera, bizikidetzaren unitatearen etekinaren zenbaketatik kanpo geratuko diren norberaren edo besteren kontuko lanetik lortutako diru-sarreraren ehunekoa zehazteko.

Oinarrizko premia ekonomikoei aurre egiteko behar adina soldata edo lansari ez duten langileen diru-sarrera txikien osagarriak dira enplegurako pizgarriak. Nolanahi ere, lan merkatu prekarioa aintzat hartuta, haiekin bilatzen den azkeneko xedea honako hau da: ziurtatzea lan prekario bat dutenek ez dezatela lana utzi gizarte prestazioetatik bizitzea agian "errentagarriagoa" gerta daitekeelako haien auzerantz.

Lehenengo gogoeta horretan xedatutakoa aintzat hartuta, badirudi kexagileari enplegurako pizgarriak aplikatu ahalko zitzaizkiola. Beraz, egokia litzateke hark lanagatik lortutako diru-sarreraren zati bat Lanbidek deskontatzea, haren etekin ekonomikoak zehazteko. Nolanahi ere, Arartekoari deigarria egin zaio enplegurako pizgarriak honako hauek ez aipatzea: prozeduran zehar Lanbidek emandako ebazpenek eta Arartekoaren lankidetzaren eskaerari Lanbideko zuzendari nagusiak emandako erantzunak.

2. Nolanahi ere, Lanbidek azpimarratu du interesdunak 2016ko urtarrilean – prestazioak eskatu zituen hilabetean– 1.343,66 euroko lan etekinak lortu zituela.

Zenbateko horrek nabarmen gaitzen du baliabiderik gabeko pertsona bakarrek bizikidetzaren unitateetarako 2006an finkatutako diru-sarrerak bermatzeko errentaren gehieneko zenbatekoa, hau da, 625,58 euro. Dena den, 2016ko urtarrileko nominak zehatz-mehatz irakurri ondoren, interesdunak hil horretan 662,35 euro kobratu zuela ondorioztatu da. Zenbateko hori, halaber, enpresak seigarren aurrekarian aipatutako ziurtagirian adierazitakoarekin bat dator.

Horrenbestez, enplegurako pizgarriak ez aplikatzeaz gain, badirudi akatsen bat dagoela Lanbideren hautematean, eta horrek honako hau ondorioztatzen eraman du: interesdunaren diru-sarrerak diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izateko legeak baimendutako gehieneko zenbatekoa gaitzen dutela eta, hortaz, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatu behar zaizkiola.

Egokia da orain gogora ekartzea Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen (aurrerantzean, 18/2008 Legea) 32.





artikuluarekin bat etorritik, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izatea etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular izateko aurretiazko baldintza dela.

3. Horrez gain, espedientean jasotako dokumentazioari erreparatuta, Arartekoak egiaztatu du atzerapen handia izan duela Lanbidek egindako jardunetan, berraztertze errekurtoa ebatzeko epeari dagokionez, bereziki.

Ildo horretan, Arartekoak egiaztatu du Lanbidek ez zuela ebatzi eta, beraz, ez zuela jakinarazi kexagileak jarritako aukerako berraztertze errekurtoa 39/2015 Legearen, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 124.2. artikulua ezarritako hilabeteko epean.

Esan dugunez, Lanbideko zuzendari nagusiak 2017ko azaroaren 9an ebatzi zuen kexagileak 2016ko maiatzaren 10ean aurkeztutako aukerako berraztertze errekurtoa.

Bestalde, behar bezala egiaztatu da kexagileak 2016ko urtarrilaren 12an eskatu zuela bi prestazioak aitortzeazkotela. Aitzitik, Lanbideko zuzendari nagusiak ez zuen eskaera urte bereko 2018ko apirilaren 22ra arte ebatzi.

Horri buruz, egokia dirudi Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 41. artikulua xedatutako herri-administrazio onerako oinarrizko eskubidea aipatzea. Haren arabera, pertsona orok du eskubidea Europar Batasuneko erakunde, organo eta erakundeek haien kontuak modu inpartzialean eta bidezkoan zentzuzko epe baten barnean azter ditzaten.

Halaber, herritarrek administrazio publiko on bat, bere ebazpenak besteak beste arrazoizko epe batean eta atzerapen desegokirik gabe xedatzen dituen, izateko duten oinarrizko eskubidearekiko korrelatiboa da administrazio-prozedurak bizkortasun-printzipioa ezartzeko eskubidea ere; eskubide hori urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 71. artikulua onartzen du, eta administrazio agintariak bere esku dauden espedienteak epe ertain batean ebaztera behartzen ditu.

Adierazitako guztia aintzat hartuta, Arartekoaren iritziz, Lanbidek baliatutako epeak hobetzeko tarte zabala dago, kexagileak jarritako aukerako berraztertze errekurtoa ebatzeko eta jakinarazteko garaian, bereziki.

Hori guztia dela-eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortzen eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoak honako gomendio hau egin du:

Gomendioa



Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu dio ondorioz gabe utz dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko ebazpena. Izan ere, ukatze hori eragindako arrazoirik ez dagoela egiaztatu da eta, beraz, kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko duen eskubidea onar dadila; horrez gain, haiek onartzeko eskaera egin eta hurrengo egunetik aurrera, hau da, 2016ko urtarrilaren 12tik aurrera, dagozkion atzerakinak ordaindu daitezela.

